

Topalekua

64zk. 2011ko martxoa

marzo 2011 - n.º 64

orr. 1 eta 4: *Gizarte-Kontseiluak Euskal Herriko Unibersitatea-ren urte anitzeko Inbertsio-Plana onartu du, 146 milioi euroko hornidurarekin 2015era arte*

orr. 2, 3 eta 4: *EHU, espainiako laugarren unibertsitatea ekoizpen zientifikoaren kalitateari dagokionez*

GIZARTE-KONTSEILUAK EUSKAL HERRIKO UNIBERSITATEA-REN URTE ANITZEKO INBERTSIO- PLANA ONARTU DU, 146 MILIOI EUROKO HORNIDURAREKIN 2015ERA ARTE

Martxoaren 9an Bilbon egin den EHUren Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak euskal unibertsitate publikoaren Urte Anitzeko Inbertsio Plana onartu du 2011-2015 aldirako eta azpiegituretan 146 milioi euro inbertitzea aurreikusten du; horietatik, ia 100 milioi Bizkaiko campusean inbertituko dira, 25 milioi Gipuzkoako campusean eta, gainerakoa, 21 milioi euro, Arabakoan.

Planaren Proiektua pasa den otsailaren 10ean onartu zuen EHUren Gobernu Kontseiluak. 126 milioiko inbertsioa barne hartzen du, Eusko Jaurlaritzak finantzatuko duena, eta 20 milioiko beste jarduera batzuk (zehazki, Gipuzkoako campuseko Erizaintza eta Medikuntza eraikina hedatzea, 5,8 milioirekin, eta Sarriko polo ekonomiko-juridikoa garatzea, 13,9 milioirekin) finantzaketa espezifikoa lortzearen arabera baldintzatuta daude.


Aipatutako planaren esparruan garatu beharreko proiektuen artean honako inbertsio hauek nabarmentzen dira: Basurtoko Medikuntza eta Odontologia Fakultatearen eraikin berria eta Erizaintza Eskola, 76 milioi eurekin; Araban Elurreta Gelategiaren hedapena, 9 milioirekin; Gipuzkoako Erabilera Anitzetarako Prestakuntza eta Berrikuntza Zentroa eraikitzea, 7,7 milioi eurekin; Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen eta Psikologia Fakultatearen erreforma (Gipuzkoa), 6 milioirekin; espazioak Goi Mailako Hezkuntzarako Europako Espazioko irakaskuntzara egokitzea (Gipuzkoa), 6 milioirekin; eta Gizarte Zientzietako eta Humanitateetako Ikerketa eta Azterketa Aurreratuertarako Zentroa eraikitzea, 11,8 milioi euroko inbertsioarekin.

EHU, ESPAINIAKO LAUGARREN UNIBERTSITATEA EKOIZPEN ZIENTIFIKOAREN KALITATEARI DAGOKIONEZ

EHU Espainiako laugarren unibertsitatea da ekoizpen zientifikoaren kalitateari dagokionez, Madrilgo eta Bartzelonako unibertsitate autonomoen eta Bartzelonako Unibertsitatearen atzetik, CSICeko zuzendari Felix de Moyak eta SCImago Research Group talde independenteak egindako “Nazioartean entzutea duen Euskal Herriko Unibertsitatearen ikerketa zientifikoa. Scopus (2003-2008)” azterketaren arabera.

Azterketa horretan, beste aldagai askoren artean, ekoizpena zentroka ere analizatzen da. Azpimarratzekoa da, batez ere, Zientzia eta Teknologia eta Kimika fakultateak nabarmentzen direla, orobat Bilboko Ingeniaritza Eskola eta Medikuntza fakultateko Gurutzeta Ospitaleko irakas-kuntza-unitatea.

Liburuan 2003 eta 2008 urteen artean nazioartean entzutea izan zuen EHUn ekoizpen zientifikoari buruzko informazio guztia jaso da, hau da, nazioarteko aldizkari ospetsuetan argitaratu dena, eta horri 2009ko datuak gehitu zaizkio. Horrela, 2003-2009 aldian, EHUK hamaikagarren postua mantentzen du 2003-2008 aldirako lortu zuen ekoizpen zientifikoari dagokionez; baina, horrez gainera, ekoizpen zientifikoaren kalitatea aztertuz gero, laugarren postuan dago 2003-2009 aldian. Ekoizpen zientifikoaren kalitatea zehazteko, erreferentziazko datu-baseetako lehenengo kuartileko aldizkari zientifikoetan egindako argitalpenen ehunekoa erabiltzen da, hau da, inpaktu-faktore handiena duten argitalpenen ehunekoa.



Bestalde, campusek nazioarteko beste erakunde batzuekin izandako lankidetzaren kapituluan, azterketak agerian uzten du Gipuzkoako campusa nabarmentzen dela, artikuluen % 37 lankide atzerriarekin sinatu baitira; ondoren Bizkaia dago, % 31ekin eta Araba, % 21ekin.

Aldagai horiek guztiak aztertu ostean, denboran gorabeherak hauteman dira, batez ere sailen arabera ekoizpen-xehetasunak aztertu dira eta Euskal Herriko


Unibertsitatearekin lankidetzan diharduten nazioarteko erakunde ezaugarriak ikertu dira. Hori egin ondoren, liburuaren egile Felix de Moyak ondorioztatu du “ezin dela zalantzan jarri finantzaketa egoki bat, orobat behar berrietara egokitutako egitura organiko bat, ikerketaren kalitatea hobetzeko eta emaitza zientifikoek arrakasta izateko oinarria direla” eta funtsezko hobekuntzak ikertzaileen konplizitatearekin eta aldaketetara egokitzeko gaitasunarekin bakarrik lortu daitezkeela. Horregatik

ESPAINIAKO UNIBERTSITATEETAKO OINARRIZKO ADIERAZLEAK 2003-2009

Erakundea	Ekoizp.	Aipam.	Aipam./ Dok	Aip. Dok. %	Naz. Lank. %	ASSJR	Pot. Ikertz.	Aip. Norm.	Q1 %↓
Universitat de Barcelona	18.858	204969	10,87	78,23	43,06	1,04	18675,92	1,44	64,14
Universidad Autónoma de Madrid	12.452	123.950	9,95	75,99	41,74	1,02	12289,21	1,24	61,18
Universitat Autònoma de Barcelona	14.280	122.818	8,60	75,11	40,27	1,02	13756,45	1,36	60,34
Euskal Herriko Unibertsitatea	8.642	59.008	6,83	70,99	34,29	0,97	8.204,69	1,06	56,49
Universitat de Valencia	12.909	118.858	9,21	75,23	41,84	1,01	12646,74	1,22	56,39
Universidad de Santiago de Compostela	8.747	69.218	7,91	76,83	38,33	1,01	8.572,76	1,22	55,63
Universidad de Oviedo	6.276	44.928	7,16	74,14	29,65	0,99	6.061,68	1,11	55,59
Universidad Complutense de Madrid	15.880	116.276	7,32	72,05	34,41	1,00	15.360,89	1,08	53,78
Universidad de Zaragoza	8.429	57.207	6,79	71,52	36,39	0,97	7.966,40	1,19	53,27
Universidad de Sevilla	8.978	57.825	6,44	70,73	35,63	0,97	8.500,74	1,12	50,79
Universidad de Granada	10.372	69.812	6,73	71,64	35,64	0,99	9.945,49	1,13	48,9
Universidade de Vigo	5.192	35.637	6,86	70,61	30,64	0,94	4.797,42	1,18	47,8
Universidad Politécnica de Valencia	8.981	52.071	5,80	62,60	29,40	0,87	7.711,88	1,17	44,68
Universidad Politécnica de Madrid	8.217	32.732	3,98	57,14	31,92	0,85	6.841,60	0,98	41,12
Universitat Politècnica de Catalunya	12.656	58.642	4,63	58,53	40,04	0,82	10.158,36	1,16	38,99

Iturria: SCimago taldea <http://scimago.es>

EKOIZPENA, NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA AIPAMEN NORMALIZATUA. CAMPUSAK



Iturria: SCimago taldea <http://scimago.es>

LANAK	Aurrekontu eguneratu	U.A.I.P-aren guztizkoaren %	Finantzaketaren %
EZ-BALDINTZATUAK	126.355.000	%86	%100
Basurtoko Medikuntza eta Odontologia Fakultatea eta Erizaintzako Unibertsitate Eskola	76.022.000	%52	%60
FICE-Psikologiako fatxaden erreforma eta klimatizazioa	6.033.000	%4	%5
Espazioak Goi Mailako Hezkuntzarako Europako Espaziora egokitzea (Gipuzkoako campusa)	6.058.000	%4	%5
Gizarte Zientzietako eta Humanitateetako Ikerketa eta Ikasketa Aurreratuertarako Zentroa (Arabako campusa)	11.848.000	%8	%9
Leioa-Erandioko Ekialdeko aparkalekua	9.654.000	%7	%8
Prestakuntza eta Berrikuntzarako Erabilera Anitzeko Zentroa (Gipuzkoako campusa)	7.715.000	%5	%6
Elurreta Gelategia	9.025.000	%6	%7
BALDINTZATUAK	19.730.000	%14	%100
Erizaintza eta Medikuntzako Eraikina hedatzea (Gipuzkoako campusa)	5.779.000	%4	%29
Sarrikon Polo Ekonomiko-Juridikoa garatzea	13.951.000	%10	%71
GUZTIRA	146.085.000	%100	

Beste gai batzuk

Bestalde, Osoko Bilkurak, 2010eko abenduaren 31ko finantza-informazioaren egoera aztertu ondoren, aurreko ekitaldiari dagokion Gizarte Kontseiluaren Aurrekontua likidatzea onartu du eta Bilboko Udal Etxebizitzetan Ventosa Bidea kaleko bi eraikinetan EHUK duen partaidetzako % 9aren doako eskuragarritasuna onartu du.

Gainera, UNIKUALek Kontseiluari jakinarazi dizkion irakasleen ordainketa-osagarriei buruzko auzien sententziak egikaritzeari dagokionez, Osoko Bilkurak erabaki du aipatu Agentziak EHUKo Gobernu Kont-

seiluari bere proposamena bidaltzea, horren justifikazioarekin eta hori bermatzen duen dokumentazioarekin, aipatutako organoak esleipen-proposamen bat egiteko Gizarte Kontseiluak azter dezan edo, hala badagokio, onar dezan, irakasle eskatzaileari dagozkion ordainketa-osagarriak esleitzuz.

Azkenik, Kontseiluak erabaki du Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari bidaliko diola Hegoa munduko garapenari eta ekonomiari buruzko ikasketetarako Unibertsitate Institutu Atxiki izatetik Institutu Misto izatera pasatzeko transformazio-proposamena.

—eranstu du— etorkizuneko erronkek “isolamendu zientifikoa” murriztean kontzentratu behar dute, “Estatuko eta nazioarteko kide ospetsuekiko aliantzak eta ikertzaileen mugikortasuna bilatuz eta finkatuz; orobat sail guztietarako urteko ziklo batean hauteman den argitalpen-ziklo irregularra aldatu behar da, orobat argitalpen-ohiturak, lan zientifikoa zuzentzen diren aldizkarien kalitateari eta ikuspena kontuan hartzen dituzten hautaketa-irizpideak aplikatuz”.

Bestalde, EHUKo errektore Iñaki Goirizelaiak, aurkezpenean nabarmendu zuen “unibertsitate ikertzaile-

learen apustua gure ardatz estrategikoetako bat dela” eta adierazi zuen Unibertsitateak hiru jardueraildodituela esparru horretan: ikertzaileen prestakuntza eta kontratazioa; azpiegitura zientifikoa garatzea; eta ekoizpen zientifikoa hobetzea. Ardatz horietako bakoitzaren barruan, zenbait ekintza aurreikusten dira, “Nazioarteko Bikaintasuneko Euskampus Campusaren estrategiaren barruan geratzen direnak eta prestatzen ari garen Ikerketa Planean jasotzen direnak”. Ondorioztatu zuen, 2011n, EHUK ikerketan egindako inbertsioaren guztizkoa 65 milioi eurokoa izango dela.